


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,2 gehitu ziren 2014ko urrian aurreko hilaren aldean

2013ko urriaren aldean eraikuntza gastuak %0,9 gutxitu dira

2014ko urrian, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,2 gehitu zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasan %-0,9, EUSTATEN datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,2 garestitu dira.

Urrian Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera ezberdina izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %0,3ko gehikuntza aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,3ko jaitsiera.

Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran zeinu bera dugu. Etxegintzako lehengaien kostuak %1,6 jaitsi ziren, Obra zibilekoak %2,0, aurreko urteko hil beraren aldean.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artean urte artean (2014ko urria 2013koaren aldean) prezio hazkunderik handienak: Metalurgia (%2,4), Zurgintza (%1,6), Material elektronikoa (%1,1). Prezio jaitsierarik handienak azken hamabi hiletan: Petrolio-fintzea (%-7,1), Ez-metalezko mineralak (%-3,3), Ez-metalezko industria (%-2,1).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2014KO URRIA

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	102,2	0,2	-0,9	-0,5
Eraikinak	102,1	0,2	-0,8	-0,5
Obra zibila	103,0	-0,2	-1,1	-0,8
LEHENGAI	101,3	0,2	-1,6	-1,2
Eraikinak	101,1	0,3	-1,6	-1,1
Obra zibila	102,3	-0,3	-2,0	-1,5
LAN-ESKUA	105,4	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua